

TRUMPEN IKUSKIZUNA ETA DEMOKRAZIAREN KRISIA

Demokrazia arriskuan dago, eta horren adibide da Donald Trump munduko politikaren erdigunera itzuli izana. Trumpentzat politika, gobernu kudeaketa bat baino, ikuskizun bat da. Zirku mediatiko bateko zeremonia-maisu gisa, publikoaren arreta trikimailuekin maneiatzen du, distrakzioa, gehiegikeriak eta konfrontazioa baliatuz. Bitartean, oihalaren atzean, bere herrialdeari eta munduko ordenari sakonki eragiten dioten erabakiak hartzen dira.

Bere diskurtso autoritario, arrazista, misogino eta koloniala ez ditu soilik Amerikako Estatu Batuetako giza eskubideak eta justizia soziala; olatu global baten norabidea markatzen du, nahi duena eginez eta deseginez. Eskuin muturreko lidergoak gora egiten ari diren mundu honetan, Trump erreferente bihurtu da askatasun demokratikoak sistemaren barrutik ahultzen dituztenentzat. Trumpen laguntzarekin Netanyahu Gazan gauzatutako genozidioa da, zoritxarrez, autoritarismo antidemokratiko horren egungo adierazle nagusia.

Europa ez dago egoera horretatik kanpo: lau eurodiputatutik bat eskuin muturreko alderdietako kide da. Joera horren isla ikusten dugu Italian, Frantzia, Austria, Hungaria eta Belgika, bai eta Argentinan, Israelen eta Salvadorren ere. Leku horietan, autoritarismoa legezkotasunez mozorrotzen da, eta gorrotoa estrategia politiko gisa normalizatzen du.

2023an, gorroto-delituek %21 egin zuten gora Espainiako Estatuan. Euskadi ez dago errealitate horretatik kanpo, eta gorroto-diskurtso asko gure kaleetan edo institutuak ateetan ere badaudela egiaztatu dezakegu.

Mugimendu horiek ez dute soilik antifeminismoa, arrazakeria edo LGTBIQ+fobia sustatzen. Benetako arriskua da oinarri demokratikoak desmuntatzen dituztela. Institutuzio, hedabide eta erakunde sozialei eraso egiten diete, desinformazioa ereiten dute, eta polarizazio soziala areagotu egiten dute. Aniztasunaren kontra daude, gizartearen ikuspegi baztertua sustatzen dute, eta beldurra botere-tresna bihurtzen dute.

Donostiako Zero Pobrezia Plataformatik salatzen dugu eskuin muturraren aurrerapenak arriskuan jartzen dituela mundu osoko giza eskubideak, justizia soziala, ingurumen-justizia eta demokrazia. Horrez gain, eskuin muturrak eragin zuzena du pobreziaren aurkako borrokan eta desberdinkerien gorakadan, eskubide sozialak murriztuz, oinarrizko zerbitzuak pribatizatuz, migratzaileak kriminalizatuz edo larrialdi klimatikoak ukatuz.

Horregatik, hau proposatzen dugu:

- Buloak detektatzeko eta pentsamendu kritikoa haurtzarotik sustatzeko tresnak ematea herritarrei.
- Muturreko diskurtsoaren benetako eraginari buruz informatzea eta kontzientziaztea, beren burua eskuin muturrekotzat jotzen ez dutenengan ere eragina baitu.
- Giza eskubideen alde mobilizatzea eta administrazioei mugimendu horiek isolatzeko eta haien aurrerapena geldiarazteko eskatzea.

Urriaren 17a Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Aste honetan, demokrazia, justizia soziala eta pertsona guztien duintasuna aktiboki defendatzeko deia egiten dugu. Demokraziarik gabe, ez dago eskubiderik. Eta eskubiderik gabe, babesten gaituen itun soziala hausten da.